

Ahimsa

TXILLARDEGI



TIRO-HOTSEK

esnatu ninduten lehengoan. Amaitua omen zen ihiziaren 'gebena' (honetan esaten zen cuskaraz gaur gaztelaniar 'veda' esaten dena). Eta gure ihiztari saiatuek ez zuten minuturik ere galdu: luzatu gabe hasi zen sarraskia Amasa inguru hauetan (gainerakoetan bezal, pentsu dut).

Zezenen torturaketa publikoa txalotzen den herri honetan, ongi dakit, ihiziaren kontrakoak jai daukagu.

Animismoaren garaietan helburua zuten alimaleen hilketak: beraien bizitasun indarrak bildu nahia.

Ondoko mendeetan, berriz, jateko, goseak ez hiltzeko hiltzen ziren abereak.

Gero, eta 'aurreratu' ahala, zezenak, arranoak eta birgarroak, gizonaren jolaserako hiltzen dira. Alimaleak oro, omen, gizon eta emakumeen solasarako sortu baitziren. Gizonaren gaintasuna eta bestekotasuna guztiz nabarmenak izanik (aski da zoo batean gorila bat arretaz begiratzeko), abereek ez dute gizona hiltzeko eskubidea. Baina gizonak, alderantziz, eskubide osoa du zezenak, arranoak eta zakurrak oro lasai akabatzeko...

Mendealdeko kulturen *harpokukeria* horrek latsatu egin nau betidanik. Hinduarren 'ahimsa' apur bat bederen ondo etorriko litzaiaguke. Bizi diren izakiekiko errespetua, alegia. Alimaleekiko errespetua hasteko. Ihiztariak eta zezenak gorroto ditut, zer nahi duzue. Gure lotsagarria direla uste dut.

Mendeabartarrok ekaldetarrak baino aisa hobekak eta azkarragoak omen gara, ordea. Gure garaiko gizonok, joan diren mendeetako gizonak baino aisa bizkorragoak bide gara...

Eta honel soldauzka garaietara narama: «nuestra compañía ea la que mejor desfila».

Eta sinetsi egiten genuen!

Zaborra

ANJEL LERTXUNDI



BADU Bashevis Singer-ek nobela bata asko gustatzen zaidana. 'Escoria' du gaztelaniar izulpenak izena, eta bertan judu poloniar baten etxera buelta kontatzen zaigu. Max Barabender aberastu egin da Argentinan pasatako urte luzeetan eta Poloniara bueltatzen denean, ez du beste asmorik: gurasoak eta aintzinako ahaiak hilibarrituta dauden kanposantua bisitatzea omen du helburu nagusi.

Baina Varsoviako kaleetan galzten da behin eta berrero, gonon atzetik, zurruta non, nola dibertitu, nondik barrena isilduko... beti atzeratuz asaba zaharren kanposantura egin beharreko bisita.

Urite asko bota dituen arren Argentinan, ez du erorrik bota. Ez da hango. Familiaren er haultsi egin du. Gizon etena, etxera bueltarüz bakarrik aurkituko du baka, etxera bueltatauz jakinon du badela inongo. Varsoviara bueltatu orduko ohartzen da, ordea, han ere Argentinan bezain arrotz sentitzen dela. Ez federik, ez hizkuntzarik, ez usadiorik gordezen du. Ze lotura klase behar ditu gizakiak inongo sentitzeko? Erro guztiak galduak ditu: oraina ez da lehenarekiko lotura (Maxek beti aurkituko ditu arrazioak kanposanturako bisita atzeratzeko), oraina ez da etorkizunari bide ematen dion zubiea ere (Buenos Airesen bezain arrotz da Max jaiotirari ere).

Halako batean, amak esaten zionaz oroitu da: «Barrengo etsai bakarri indartsuagoko duk, kanpoko hamar etsai indartsuenak baino». Hori ez sinestea da nobelari titulua ematen dion zaborra.

Max-en tragedia, gaurko gizon-emakume guztiona da: Godot noiz etorriko bizi gara. Beste emandako soluzioen zain gaudenez, etsaiak ere kanpoan dauzkagula uste dugu.

EL DIARIO VASCO

Bidaia

Oporrak direla eta, egokiak dira udako egunak bidaiazteko. Arrazoi asko daude bidaiaztera bultzatzen dutenak. Nagusia, batzuek bizi diren tokitik, inguruan duten jendearengandik ihes egiteko duten beharra. Ihes mota hau da zailena, batek bere buruarengandik ihes egiten asko saiatuagatik ere ez duelako inoiz hori bete-betean loturko.

Beste arrazoi bat, batzuek beren buruaren bila aritzeko duten beharra ere bada. Bidaia orduan inazio bihurtzen da, zeren eta nonbaitera doana ez baita inoiz joan zen bezala itzultzen, guztiz bestelako izaki bihurtuta baizik.

Bidaia horien bidez eskarmentua eta, batez ere, heldutasuna lortzen dira.

Horrela bidaiazten dutenek, ipuinetan bezala, hainbat proba fisiko eta mental gainditu beharra dute.

Nolanahi ere, bidaiazteko ez bidaiazteko adina arrazoi daude. Norberarengandik ihes egitea ezinezkoa da, eta nork bere burua aurkitzeko onena bizi den tokitik ez mugitzea da. Eta gauzak eramateen ikastea. Hori ere

HEMEROTEKA



Ekonomia eta Hazienda Ministerioa. Malabar Jokoak.

TULINO / DEIA

jakinduria mota bat da eta.

FELIPE JUARISTI

EL PAIS

Kasko urdinak merkatu beltzean

'The Guardian-en' arabera, salaketak ziurtatu egiten du Sarajevo dagoen kasko urdinaren tropa bakoitzak bere *espezialitatea* daukala: heroina, zigarroak eta kotxeak ukrainiarrek, prostituzioa eta alkohola frantziarrek eta munta gutxiko trafikoa egitziarrek. Egunkariak

ziurtatzen duenez, dagoeneko 22 soldadu —19 ukrainiar eta 3 frantziar— bidali dituzte hots handirik atera gabe beren herrialdeetara *negozio* mota hauekin zerikusi izateagatik. Sarajevo poliziak ezin duela esku hartu balezaten du, kasko urdinak legezki beren kontroletik at daudelako.

'Nazio Batuetako soldaduek gerraren aprobetxategi bihurtu dira eta kontroletik kanpo daude, hiltzen ari den hiri horren lepotik etekinak ateratzen ari direlarik', idatzi du Maggie O'Kane artikularen egileak.

'The Guardian-en' arabera, ukrainiar tropako soldaduek sartu zuten heroina aurreko

martxoan, lanranga kargamendua batean ezkutatu. Droga horren gramo batek, egun, 400 libra esterlina (80.000 bat pezeta) balio du Sarajevo, hain zuzen gerrak sortutako traumen ondorioz heroinomanoen kopurua azkar handitu den hiri horretan, bertan gatazkaren aurretik ehunen bat heroinomano besterik ez bazegoen ere egun 3.000 bat izatera pasatu baita horien kopurua Kosevoko Ospitaleko drogamenpekotasun atala zuzentzen duen Ismet Ceric irakaslearen estimazioen arabera. Aurreko martxoan ukrainiarrek sartutako heroinak guztira hogeita lau milioi pezeta inguruko balioa zuen.

UZENDARIARI

Euskal kulturaren aurkako atentatua

Azpeitiko Burnibidearen Euskal Museoko sofitutako atentatu basatia dela eta, Industri Ondare eta Herri Lan Euskal Elkarriak eta Gipuzkoako museotako langileok gure arbuiorik sutsuena adierazai nahi dugu. Euskal Kultur Ondareari eta honen zaintza eta arduraren duteen museoei egin bait zaie eraso zuzena.

Azpeitiko gertaera hiruzpalau txoropitoren suntsitzeko grinak bultzaturiko astakeria hutsa baino, egileak zio politiko edo ideologikoak gidatuak ari izan direla baio-tisiko balitz, ekintzaren larria ikaragarri areogotuko litzateke. Euskadiko Kultur Ondarearen aurkako eraso eroa baino ez den hau inolako azalpen politikoz estali

edota zurutu nahiak ez du halako azio berriei bidea zabaldu besterik egiten. Gaur Azpeitiko Burnibidearen Euskal Museoa izan da; bihar San Telmo Museoa izan daiteke, edo Bilboko Arte Ederretakoa, edo Gipuzkoako Liburutegi Probintziala.

Zentzugabekeria eta fanatismoari buru egiteko garaia da, hain zuzen Euskal Herriko indar politiko eta kultural guztiei aipatu ekintzerekiko jarrera argia eta kondena zorrotza eskatuz. Inoiz baino beharrezkoago dugu gaur, edonolako bortizkeria bazter batean utzi eta desadostasun politiko eta kultural guztiak era zibilizatuan bidera daitezen.

Halaber, Herrian memoria historikoa-ren eta ondasun kulturalen kontrako atentatuek ekiditen saiatzeko neurri gisa edo, gure museotako segurtasun neurriak beraztertut eta indartu behar direla uste dugu.

Bukatzeko, Fiorenza hiriak 1993ko maiatzean sofitutako atentatua zela eta, Museoen Nazioarteko Kontseiluko (ICOM) estatuko batzordeak idatzi agiriarekin bat egin nahi dugu:

«Gure herentzia kultural eta naturala, gizon-emakume bakoitzaren bizitza bezala, altxor bakar eta errepikaezina dela, gizaki bakoitzak ondasun komun hau gozatzeko eskubidea eta zaintzen laguntzeko beharra duela, eta honen kalte edo hondamena zuri dezakeen inongo aitazki edo arrazoirik ez dagoela gizartearen kontzientzian sarraraztea behar beharrezkoa da.»

INDUSTRI ONDARE ETA HERRI LAN EUSKAL ELKARTEA. GIPUZKOAKO MUSEOETAKO LANGILEAK. (30 SINADURA)

Azpeitia (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



ANJEL IRURETA

Jacek Ziober

Jakina denez Osasunari aurkeztu zaio aukera, Ziober jauna eskeini diote prezio onean gainera. Honen aurrean zein izango da Osasunaren jarrera, jokalarri hau taldean sartu edo bidali etxera? Oraindik ez du hautatu baina ziur ez dela galera.

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODJK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendariak: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezkaris: INAKI URIA

Gerentzia: FERMIN LAZKANO

Zuzendariak: MARTXEL OYAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIZEN ETXEHARRERA

Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARTSLUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitateak: PUBLICITAS

Capitan Haya 1 2.a 28020 Madrid / 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

MELBIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialea 01-02 Pabliko / 20160 Lasarte-Oria / 37 35 45 / Fax: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazioak: Antso Jakitoma, 16-1 / 20010 Donostia / 46 90 22 / Fax: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. Leke / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroak: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrizki dorrea) / 31011 Iruñea / 17 80 78/79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltze Enpresa, 2-1. Leke / 48003 Bilbao / 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1/ 503 Posta kuttaltia, / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11